



MADDI SOROA

**Baleren Bakaikoa Azurmendi**

EHUKO  
IRAKASLEA,  
EKONOMIALARIA

# Kapitalismoaren neska-mutilak

JAKIN BADA KIGU gazteria izugarrizko langabezi tasa jasaten ari dela. Duela zenbait hilabete, zutabe honetan bertan, zenbait datu eman nituen, bai estatukoak, baita Hego Euskal Herrikoak ere. Azkenaldian ez da egoera hobetu, nahiz Espainiako Gobernuak balentria gisa hartu erregistra-tutako langabeen kopurua 31 lagunetan murriztu zela abuztuan. Ez zuten aipatu Gizarte Asegurantzak ehun mila lagun inguru galdu zituela urte honetako abuztuan. Horiek bai direla benetako datu kez-kagarriak.

Ikusita enplegua aurkitzea oso zaila dela, lan merkaturatzea atzeratu egiten dute gazte askok. Hor dugu gazte talde andana masterrak eta doktoregorako ikas-ketak egiten. Honela, beste 3-4 urte igaroko dituzte lana bilatzen hasi aurretik. Eta gero zer?

*Lanpostu bikain horietakoa lortu nahi zuen Moritz Erhart-ek Londresko Merrill Lynch-en behin-behineko lanpostua eman ziotenean praktikak burutzeko asmoz. Bankuko jabe aseezinei erantzuteko, hiru egun, atsedetik gabe lanean aritu ostean, etxeratu zenean dutxan hilik aurkitu zuten*

Marxek aspaldi esan zigun kapitalismo-ak ondo funtzionatzeko, hau da, mozkin tasa oparoak kapitalistek bereganatzeko, oso garrantzitsua zela langabeen (industria) armada eratzea. Horrela, langabetuen armada honek alokairuak presiopean edukiko ditu, ahal diren apalenak izan daitez-zen. Guztiau gertatzen ari da gaur egun, eta sindikatuek indar gutxi daukate egoera hori ekiditeko. Eta egoera hau krisialdi garaietan areagotu egiten da. Ondorioz, gardenki ikusten dugu langileen eros ahal-mena gutxitzen ari dela, baita beren parte-hartzea ere urteroko Barne Produktu Gordinean.

Bien bitartean, goi-mailako agintariak, bai politikoko eta batik bat finantzarioak, inoiz baino aberastasun handiagoa eskuratz-zen ari dira. Hor goian dagoen klase agintariak osatzen du talde boteretsua

ekonomia eta politika nahi duten eran kudeatzeko.

Baina nola heldu agintari klase horretara beheko maila batetik hasita? Jendartean maila aldaketak ez dira erraz ematen. Hala ere zenbait mugimendu gauzatzen ari dira, nahiz egunetik egunera zailagoa den. Zailtasun hauek salatzen ditu Joseph Stiglitzek gazte iparramerikarren aukera ber-dinen eza bere azkenetako liburuan (*The Price of Inequality/El precio de la desigualdad*. Taurus). Zein zaila zaien gazteei lanpostu bikainak erdieste!

Lanpostu bikain horietakoa lortu nahi zuen Moritz Erhart-ek Londresko Merrill Lynch-en behin-behineko lanpostua eman ziotenean praktikak egiteko asmoz. Bankuko jabe aseezinei erantzuteko hiru egun atsedetik gabe lanean aritu ostean, etxeratu zenean dutxan hilik aurkitu zuten. Mutil horren amak ere zerbait pentsatuko du sistema kapitalista suntsitzaile honi buruz, ezta?

Dirudienez, honela lana egiten duten gazte asko daude. Hogeita lau ordu lanean aritu ondoren, taxiak jasotzen ditu lantokiko atarian, etxera eraman dutxatzeko eta arropa garbia jantzeko, eta taxi bera han dauka zain lantokira eramateko. Honela lehertu arte. Esklabotza berria, Marxek bere zorroztasunean ikusi ez zuena. Eta ugazaba modernoentzat gazte hauek, langile garaikideok, robotak dira, dirua egiteko makinak. Gazteak bizitza eman ostean gupidaren aztarren ñimiñorik azaltzen ez dutenak dira elite boteretsu hori osatzen duten pertsonak.

Hala ere, aukera xumeagoak egon badaude lanpostu duinak ahalbidetzeko. Izan ere, ikasle gazteei zuzenduta EAEn “junior kooperatibak” abian jarri ditu Eusko Jaurlaritzak euskal unibertsitateekin, baita lanbide heziketako eskolekin. Nahiz eta, tamalez, EAJk eta PSE-EEK sinatu duten akordioan ez diren aipatu ere egiten. Zorritzarez, akordio ospetsu hori lantzen aritu direnek kezka gehiago zeukaten azpiegitura erraldoiak zein izango diren asmatzen, gazte kualifikatuentzat sortu behar diren lanpostuetan baino. Pena da. ■

